

*Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)*



*Artziniegako Udala
(Araba)*

ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2017ko azaroak 23
Ordua: 09:05 – 11:05
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1.- 2017ko urriaren 26an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue? Nik gauza pare bat. 10. orrialdean, Udalbatzara urriaren 12an herrialde indigenen eguna aldarrikatzeko aurkeztutako mozioan, uste dut abstentzioa eman nuela eta Mariak ere bai, eta aldeko boto modura agertzen da.

Inmaculada Vivanco Retes: Ondoren, 10. orrialde horretan bertan, behean, Euskal Nazionalistak eta EH Bildu alderdien aldetik “esta suscitado” ipintzen du gaztelaniaz, eta “está suscrito” da egokia.

Alkatea: eta ondoren, 17. orrialdean, nire agerraldian, eta hau Pilarrekin egiaztatu dut, erdialdera zera diot “artxibozaina eta Mari Joserena, jakin genuenean esan genuen aizu, bada, horiek ezin dira elkarrekin egon. Mari Jose astean behin etortzen da eta Blanca hilean bizpahiru aldiz” hor hile da, ez aste. Hori dagoeneko egiaztatuta dago Pilarrekin.

Joseba Vivanco Retes: lehen orrialdean, bat zenbakidun orrialdean, Joseba Vivanco dago idatzita, eta oker ez banaiz Joseba Elejalde da.

Bestelako oharririk egin ez denez, 2017ko urriaren 26an egindako saioko akta bozkatu da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2.- Barrenkalen telefono-instalazioak kanalizatutako lurpeko azpiegiturekin lurperatzeko Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena onartzea.

“2017ko AZAROAREN 16an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Gaia.- Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena onartzea Barrenkaleko azpiegiturari dagokionez.

Ikusirik Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena, telekomunikazioko azpiegitura kanalizatuei dagokienez.

IKUSIRIK, Artziniegako Udalak 2004an Barrenkale kaleko sareak edota zoladura berritzeko proiektua gauzatu zuela, telekomunikazio-azpiegiturak osorik diseinatu, dagokion obra zibila egitea barne, eta Telefónica de España sozietatearen jabetzako fatxadetan telefono-instalazioak lurperatu ahal izateko beharrezkoak diren telefono-materialak instalatuz.

KONTUAN HARTUZ 2017ko azaroaren 20an (3110 zenbakidun sarrera) aurkeztutako hitzarmen-proposamenean egindako hizpaketak, Lurraldeko Informazio-batzordeak erabaki du eta Udalbatzari proposatzen dio, har dadila hurrengo

AKORDIOA:

LEHENA.- Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena, Barrenkaleko azpiegiturarekin lotutakoa, onartzea, baldintza hauekin:

ARTZINIEGAKO UDALAREN ETA TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. SOZIEATEAREN ARTEKO HITZARMENA, TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITURA KANALIZATUEI DAGOKIENEZ.

Artziniegako udalerrian, 2017ko azaroaren 03an.

BERTARATUAK

Alde batetik, **Iñigo Gomez Unzueta** jauna, 30.645.522-T N NAN zenbakiarekin, ondorio hauetarako helbidea Artziniegako Garai Plazako 1. zenbakian duena, **ARTZINIEGAKO UDALAREN** (aurrerantzean Udala), izenean eta hura ordezkatzuz, Udaleko Alkate-Lehendakari izaerarekin, izendapenaren aktaren fotokopiarekin egiaztatzen duelarik ordezkari hori.

Eta bestetik, **Jose Enrique Villen Villen** jauna, 29.085.049- P NAN zenbakiarekin, Telefónica de España, S.A.U. (aurrerantzean TELEFÓNICA DE ESPAÑA) ordezkatzuz eta haren izenean, ondorio hauetarako helbidea Zaragozako Benjamin Jarnes kaleko 2. zenbakian, 3. solairuan, duena, III Lurraldeko Lurralde Idazkari izaerarekin, Madrileko Francisco Hispan Contreras notario jaunak 2000. urteko irailaren 13an, bere protokolo 1367 zenbakiarekin, emandako ahalduntze-eskriturarekin egiaztatzen duelarik ordezkari hori.

Bi aldeek egintza honetarako nahiko ahalmen aitortzen diote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

1. Udalak Artziniegako udalerriko Barrenkale kaleko (aurre Beheko Kalea) sareak edota zoladura berritzatzeko proiektua gauzatu duela .



2. Proiektu hori gauzatzea dela medio, Udalak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen jabetzakoak diren eta egun eragindako zonaldetik igarotzen diren telefono-instalazio jakin batzuk, airekoak edota fatxadetakoak, lurperatzeko asmoa duela.

3. Bi aldeen helburuak lortu ahal izateko lankidetzaz eraginkorra finkatzeko xedez, Hitzarmen hau idazten dela, kontuan hartuz hurrengo:

HIZPAKETAK.

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Udalaren eta TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen artean lankidetzaz esparru bat finkatzea, kanalizatutako lurpeko azpiegituren bidez TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen jabetzakoak diren telefono-instalazioak lurperatzeko beharrezkoak diren obrak egite aldera. Instalazio horiek, gaur egun, airez bideratuta edo fatxadan daude, Barrenkale kaleko (aurrez Beheko Kalea) sareak edota zoladura berritu, egokitu eta urbanizatzeko proiektuaren barnean, **Artziniegako udalerrian.**

Eta Hitzarmen honen ondorioetarako, telekomunikazio-azpiegitura kanalizatu modura ulertzen da, dagokion obra zibilaren bidez instalatu edota eraikita, kableak eta lotutako elementuak instalatu ahal izateko konponbidea ematen duten elementuen multzoa (hodiak, kutxatila, erregistro-kamerak, idulkiak, albo-irteerak...).

BIGARRENA.- UDALAREN ESKU-HARTZEAK

Udalak diseinatu eta gauzatu du osorik Hitzarmen honekin babesten den telekomunikazio-azpiegitura, dagokion obra zibila egitea barne, eta hark instalatu ditu beharrezkoak diren telefono-materialak. Ezaugarriak (kanalizazioen dimentsioak eta eraikuntza-kokapena, instalatutako kondukto kopurua eta horien diametroa, dauden erregistro-elementuen tipologia, etab.) xehetasunez deskribatzen dira 1. eranskin modura atxikitako dokumentazioan.

Aipatu azpiegitura eraikitzeke prozesuan, Udalak horri dagokionez araudi tekniko aplikagarrian xedatutako manuak bete ditu. Horrela, telekomunikazio-zerbitzuak emateko egokiak diren telefono-materialak instalatu ditu.

Gainera, Udala azpiegitura eraiki eta ezartzeko lanak gauzatzeko orotariko lizentzia eta baimenak eskuratzeko arduratu da, azpiegiturak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen aldetik hura modu baketsuan erabiltzea ahalbidetzeko legeko betekizunak betetzen dituela bermatuz.

Azkenik, Udala telekomunikazio-azpiegitura eraikitzeke lanak egindako zonaldetik igarotzen diren lurpeko beste eroale batzuetako zerbitzuei dagokion informazio eskatu eta hura tratatzeaz arduratu da.

Horrenbestez, Udalak adierazten du eraikitako azpiegitura erabat egokia dela telekomunikazio-sare publikoak ezarri eta ustiatzeko.

HIRUGARRENA.- TELEFÓNICA DE ESPAÑA SOZIETATEAREN ESKU-HARTZEAK

Azpiegituraren berrikuspena.

TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak aukera izango du egiaztatzeke eraikitako azpiegitura behar bezala gauzatu dela eta araudi aplikagarriaren arabera dela. Horretarako, aukera izango du, Udalarekin koordinazioan, hark baimentzen baititu, azpiegitura telekomunikazio-zerbitzuak emateko egokia ote den egiaztatzeke neurri eta lan guztiei ekiteko. Egiaztatzeke lan horiek egin eta, hala badagokio, ohartarazitako gabeziak Udalaren aldetik konpondu ostean, TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak beharrezkoa zaion eraikitako azpiegituraren harrera egiteari ekingo dio. Prozesu horretan Hitzarmen honetako bosgarren hizpaketan adierazitakoari jarraituko zaio. Harrera horrekin lotuta, instalazioek bi urteko berme-epea izango dute harrera egiten denetik zenbatzen hasita.

Instalazioak lurperatzea

TELEFÓNICA DE ESPAÑA arduratuko da egun dauden airezko edota fatxadako instalazioak desmuntatzeko lanak egiteaz eta, ondoren, horiek Udalak Hitzarmen honi jarraiki eraikitako azpiegitura kanalizatuan lurperatzeaz. Instalazioak aldatzeko lan horiei ekin aurretik, kanalizatutako azpiegitura onartua izan beharko da, hurrengo hizpaketetan xedatutako moduan.



Eraikitako azpiegiturearen mantenua

Behin TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak azpiegitura hurrengo hizpaketan ezarritakoaren arabera jaso ostean, enpresa hori arduratuko da hura mantendu eta kontserbatzeaz (eraikuntzan izandako akatsen ondorioz sortutako kalteak salbu), eta hori horrela izango da hartako erabiltzaile bakar modura jarraitzen duen bitartean.

LAUGARRENA.- AZPIEGITUREN HARRERA

Udalak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateari lagatzen dio Hitzarmen honek jasotzen duen telekomunikazio-azpiegiturearen erabilera, 1. eranskinean zehazten dena, eta TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak egokitzen jotzen du azpiegitura bere zerbitzuak behar bezala ematea bermatzeko, Udalak, hala badagokio, ohartarazitako akatsak konpontzeko duen betebeharraren kalterik gabe.

Behin betiko harrera ematen den unetik aurrera, lagatuko telekomunikazio-azpiegitura haren gaineko erabilera erabateko eta etengabeko eskubidearen baitan geratuko da TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen mesedetan, hartarako sarbide libre izanik.

Hitzarmen honen sinatzaileek adierazten dute haren baitan eraikitako azpiegitura kanalizatuen erabilera Udalak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateari lagatzen diola Hitzarmenaren lurralde-eremuan egun dauden airezko edota fatxadako instalazioak aldatzeko lanen kontraprestazio modura, aipatu Konpainiak lurperatu egingo dituenak lagatzeko azpiegituretan, Udalarentzat inolako kargurik sorrarazi gabe, eta hori elkarren arteko kontraprestazioak orekatuak direlako, horrenbestez, jabari publikoan kokatutako telefono-instalazioak aldatzeko indarreko arloko legerian xedatutako araubide juridikoa betez. TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak, egungo airezko instalazioak lurperatzeaz gain, lagatuko azpiegiturek bere zerbitzuak emateko beharrezkoak zaizkion sare eta ekipamendu berriak instalatzeko erabili ahalko ditu.

BOSGARRENA.- OBRAK ONARTZEKO AKTAK

Honakoa da kanalizatutako azpiegiturearen harrera-prozesuan erabiltzeko dokumentazioa:

- a) Azpiegitura onartzeko moduan badago, "Onarpen Akta" izeneko 2. eranskineko eredia bete eta sinatuko da.
- b) Eraikuntzan akatsak egoteagatik azpiegitura onartzeko moduan ez badago, "Onarpen-prozesua eteteko Akta. Konpontzeko Akatsen Zerrenda" izeneko 3. eranskinaren eredia bete eta sinatuko da. Behin akats horiek konponduta, eta azpiegitura onartzeko moduan egonik, "Onarpen Akta" izeneko 2. eranskineko eredia bete eta sinatuko da.
- c) "Onarpen-prozesua eteteko Akta. Konpontzeko Akatsen Zerrenda" izenekoan adierazitako egunetik hiru hilabetera hartan zerrendatutako akatsak konpondu ez badira, TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak eskubidea izango du Hitzarmen honetan sinatutako akordioa behin betikoz ezeztatzeko.

SEIGARRENA.- BARNEKO AZPIEGITURAK ERAIKINETAN

Kanpoaldeko azpiegitura kanalizatuei jarraipena emate aldera, eta egokien jotzen diren prozeduren bidez, egungo airezko hargune indibidualek eragindako higiezinetakoko jabeek beharrezkoak diren egokitzapen-lanak egin beharko dituzte derrigorrez horien barnean aldatuz joango diren telefono-instalazioak sartzera eta kokatzea ahalbidetzeko xedez. Horretarako, eraikinen barneko telekomunikazioko baterako azpiegiturei dagokienez indarrean den araudia hartu beharko da kontuan, eta gainera dagozkion hirigintza-lizentziak eskuratu beharko dira. Era berean, eragindako erakinak barnetik egokitzeko lanak programatu egin beharko dira eta modu koordinatuan egin beharko dira eragindako airezko instalazioak aldatzeko eta lurpeko kanalizazioak eraikitzeko lanekin batera. Hori guztiari, emandako zerbitzuaren jarraikortasuna eta kalitatea behar bezala bermatzeko xedez. Edozein kasutan, TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak barnealdea egokitzeko lan horiek behar bezala gauzatzen direla egiaztatuko du bere airezko instalazioak lurperatzeko lanei ekin aurretik.

Lurperatzeko lanak ez dira egingo zerbitzuaren jarraikortasuna eta kalitatea behar bezala ziurtatuta egon arte, eta eragindako higigarrien jабedunek horietan eraikita leudeken barneko



azpiegiturak erabiltzeko TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateari emandako baimenak eskuan izan beharko dira aldez aurretik.

ZAZPIGARRENA- INDARRALDIA ETA ONDORIOAK

Hitzarmen honen indarraldia 18 hilabetekoa da sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, ondoriorik gabe geratzen delarik epe hori igarota azpiegitura eraikitzeko lanak hasi ez badira.

ZORTZIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUNA

Sinatzaileek Hitzarmen honen bidez eskuratzen duten informazioa sekretu eta konfidentzialtasun handienarekin tratatzeko konpromisoa hartzen dute.

Eta hala ager dadin, adostasunaren proba gisa, parte hartzen duten aldeek Hitzarmen hau sinatzen dute, bikoiztuta, 1. goiburuan adierazitako leku eta egunean.

UDALAK

TELEFÓNICA DE ARAMAIO DE ESPAÑA S.A.U. SOZIETATEAK

Iñigo Gomez Unzueta sinadura

Jose Enrique Villen Villenen sinadura

1. ERANSKINA

2017-11-03an TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. ETA ARTZINIEGAKO UDALAK SINATUTAKO HITZARMENAREN XEDE DIREN AZPIEGITUREN DESKRIBAPENA

20. planoko 1. orria atxikitzen da.

2. ERANSKINA

2017-11-03an TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. ETA ARTZINIEGAKO UDALAK SINATUTAKO HITZARMENARI DAGOKION ONARPEN-AKTA.

Proiektu-zenbakia: 6038135

Proiektuaren izena: ARCENIEGA (ALAVA): CAN. ARTEKALE KALEA

Probintzia: ARABA

Obraren identifikazioa:

Planoak: 20., 1. orria

Obraren entrega:

Onarpenaren hasiera:

Onarpenaren amaiera:

Akta honen sinadura-data:

Beheran sinatzen dutenek dokumentu honetan adierazten dute onarpen-akta honetan jasotzen den obra araudi tekniko aplikagarriaren arabera eraturako proiektu teknikoarekin bat etorriz burutu dela, dagozkion eraikuntza-metodoak erabilia eta oinplanoa aurkeztuta, hala aurreikusitako zerbitzua emateko nola hura mantentzeko behar besteko kalitatearekin. Horrenbestez, zerbitzua emateko prest geratzen da, instalazio horiek TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. sozietatearen aldeko erabilera oso eta iraunkorreko eskubide izatera pasatzen direlarik.

ARTZINIEGAKO UDALAK

TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. SOZIETATEAK

Iñigo Gomez Unzueta sinadura

Jose Enrique Villen Villenen sinadura

3. ERANSKINA

2017-11-03an TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. ETA ARTZINIEGAKO UDALAK SINATUTAKO HITZARMENARI DAGOKION ONARPEN-PROZESUA ETETEKO AKTA. KONPONTZEKO AKATSEN ZERRENDA

Proiektu-zenbakia: 6038135

Proiektuaren izena: ARCENIEGA (ALAVA): CAN. ARTEKALE KALEA

Probintzia: ARABA

Obraren identifikazioa:

Planoak: 20., 1. orria

Obraren entrega:



Onarpenaren hasiera:

Onarpenaren amaiera:

Akta honen sinadura-data:

Beheran sinatzen dutenek adierazten dute ezinbestekoa izan dela goiburuan zehaztutako obrak onartzeko prozesua etetea hurrengo arrazoiak direla medio:

JABETZAK KONPONTZEKO AKATSEN ZERRENDA

(espazio gehiago behar bada, inprimaki honen atzealdea erabili behar da)

ARTZINIEGAKO UDALAK

TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. SOZIJETATEAK

*Iñigo Gomez Unzueta*ren sinadura

Jose Enrique Villen Villenen sinadura

BIGARRENA.-Alkate-Presidente jaunari gai honekin lotutako dokumentu oro sinatzeko eskumena ematea”.

Alkatea: antzeko hiru puntu dira, Barrenkalen, Artekalen nahiz zonalde guztian (Gernika Hiribidean, Hormazan, Amezola Hiribidean...) egin ziren hobekuntza-obrak dira, eta hori hodi kanalizatua sartu zen. Horrenbestez, azken batean, hitzarmen honen xedea da Telefónicak oraintxe bertan airez duen kablea sartzea, hoditik sar dezan, lurperatuta. Zerbait esan nahi baduzue...

Joseba Elejalde Ribacoba: niri oso ongi iruditzen zait, obrak duela asko egin ziren eta guztia kanalizatzen eta lurperatzen has daitezela, izan ere, egia esan, dugun Herrigune Historikoarekin, itsusi samar geratzen da. Baina, gustatuko litzaidake esatea Iñigo, hori beste auzo batera ere eraman dezakegula, Erreta Tuterara, hura ere ondare historikoa baita, eta han ere kable guztiak airezkoak dira, ez dago bakarra ere lurperatuta. Duela hogeitun urte inbertsio handi bat egin zen, obra handi bat, badago hoditeria, hiru hodikoa, telefonoa nahiz argia sartzeko prestatua, eta gaur egun oraindik kable horiek guztiak fatxadetan, kaleetan eta plazetan ikusten ditugu. Prestatu duzun hitzarmen hori bera hara eraman dezakegu.

Alkatea: ez, ez, hau, batez ere, berriki amaitu den obra honen ondorioz sortu da, Telefónicak esan du, aizu, bada, horrez gain egiteke ditugu oraindik Barrenkalekoa eta Artekalekoa. Egin beharrean gaude. Beno, bada, orduan antzeko hitzarmen bat sina dezakegu, eta gauzatu egiten da behingoz. Zergatik ez den egin lehenago Barrenkalen eta Artekalen? bada, ez dakit. Baina, Erretan egiaz obra bat badago eta hiru hodikoa bada, bada Telefónicari planteatu diezaiokegu eta hitzarmen honetako baldintza beretan sina daiteke, Telefónicarekin sina daiteke Erreta Tuteran ere kablea lurpera dezaten.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3.- Artekalen telefono-instalazioak kanalizatutako lurpeko azpiegiturekin lurperatzeko Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena onartzea.



“2017ko AZAROAREN 16an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Gaia.- Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena onartzea Artekaleko azpiegiturari dagokionez.

Ikusirik Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena, telekomunikazioko azpiegitura kanalizatuei dagokienez.

IKUSIRIK, Artziniegako Udalak 2004an Artekale kaleko sareak edota zoladura berritzeko proiektua gauzatu zuela, telekomunikazio-azpiegiturak osorik diseinatu, dagokion obra zibila egitea barne, eta Telefónica de España sozietatearen jabetzako fatxadetan telefono-instalazioak lurperatu ahal izateko beharrezkoak diren telefono-materialak instalatuz.

KONTUAN HARTUZ 2017ko azaroaren 20an (3109 zenbakidun sarrera) aurkeztutako hitzarmen-proposamenean egindako hizpaketak, Lurraldeko Informazio-batzordeak erabaki du eta Udalbatzari proposatzen dio, har dadila hurrengo

AKORDIOA:

LEHENA.- Artziniegako Udalaren eta Telefónica de España S.A.U. sozietatearen arteko hitzarmena, Barrenkaleko azpiegiturarekin lotutakoa, onartzea, baldintza hauekin:

ARTZINIEGAKO UDALAREN ETA TELEFÓNICA DE ESPAÑA S.A.U. SOZIEATEAREN ARTEKO HITZARMENA, TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITURA KANALIZATUEI DAGOKIENEZ.

Artziniegako udalerrian, 2017ko azaroaren 03an.

BERTARATUAK

Alde batetik, **Iñigo Gomez Unzueta** jauna, 30.645.522-T N NAN zenbakiarekin, ondorio hauetarako helbidea Artziniegako Garai Plazako 1. zenbakian duena, **ARTZINIEGAKO UDALAREN** (aurrerantzean Udala), izenean eta hura ordezkatzuz, Udaleko Alkate-Lehendakari izaerarekin, izendapenaren aktaren fotokopiarekin egiaztatzen duelarik ordezkari hori.

Eta bestetik, **Jose Enrique Villen Villen** jauna, 29.085.049- P NAN zenbakiarekin, Telefónica de España, S.A.U. (aurrerantzean TELEFÓNICA DE ESPAÑA) ordezkatzuz eta haren izenean, ondorio hauetarako helbidea Zaragozako Benjamin Jarnes kaleko 2. zenbakian, 3. solairuan, duena, III Lurraldeko Lurralde Idazkari izaerarekin, Madrileko Francisco Hispan Contreras notario jaunak 2000. urteko irailaren 13an, bere protokolo 1367 zenbakiarekin, emandako ahalduntze-eskriurarekin egiaztatzen duelarik ordezkari hori.

Bi aldeek egintza honetarako nahiko ahalmen aitortzen diote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

1. Udalak Artziniegako udalerriko Artekale kaleko (aurrez Erdiko Kalea) sareak edota zoladura berritzatzeko proiektua gauzatu duela .

2. Proiektu hori gauzatzea dela medio, Udalak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen jabetzakoak diren eta egun eragindako zonaldeak igarotzen diren telefono-instalazio jakin batzuk, airekoak edota fatxadetakoak, lurperatzeko asmoa duela.

3. Bi aldeek helburuak lortu ahal izateko lankidetzara eraginkorra finkatzeko xedez, Hitzarmen hau idazten dela, kontuan hartuz hurrengo:

HIZPAKETAK.

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Udalaren eta TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen artean lankidetzara-esparru bat finkatzea, kanalizatutako lurpeko azpiegituren bidez TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen jabetzakoak diren telefono-instalazioak lurperatzeko beharrezkoak diren obrak egite aldera. Instalazio horiek, gaur egun, airez bideratuta edo fatxadan daude, Artekale



kaleko (aurrez Erdiko Kalea) sareak edota zoladura berritu, egokitu eta urbanizatzeko proiektuaren barnean, **Artziniegako udalerrian**.

Eta Hitzarmen honen ondorioetarako, telekomunikazio-azpiegitura kanalizatu modura ulertzen da, dagokion obra zibilaren bidez instalatu edota eraikita, kableak eta lotutako elementuak instalatu ahal izateko konponbidea ematen duten elementuen multzoa (hodiak, kutxatilak, erregistro-kamerak, idulkiak, albo-irteerak...).

BIGARRENA.- UDALAREN ESKU-HARTZEAK

Udalak diseinatu eta gauzatu du osorik Hitzarmen honekin babesten den telekomunikazio-azpiegitura, dagokion obra zibila egitea barne, eta hark instalatu ditu beharrezkoak diren telefono-materialak. Ezaugarriak (kanalizazioen dimentsioak eta eraikuntza-kokapena, instalatutako konduktu kopurua eta horien diametroa, dauden erregistro-elementuen tipologia, etab.) xehetasunez deskribatzen dira 1. eranskin modura atxikitako dokumentazioan.

Aipatu azpiegitura eraikitzeo prozesuan, Udalak horri dagokionez araudi tekniko aplikagarrian xedatutako manuak bete ditu. Horrela, telekomunikazio-zerbitzuak emateko egokiak diren telefono-materialak instalatu ditu.

Gainera, Udala azpiegitura eraiki eta ezartzeko lanak gauzatzeko orotariko lizentzia eta baimenak eskuratzear arduratu da, azpiegiturak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen aldetik hura modu baketsuan erabiltzea ahalbidetzeko legezko betekizunak betetzen dituela bermatuz.

Azkenik, Udala telekomunikazio-azpiegitura eraikitzeo lanak egindako zonaldeetik igarotzen diren lurpeko beste eroale batzuetako zerbitzuei dagokion informazio eskatu eta hura tratatzeaz arduratu da.

Horrenbestez, Udalak adierazten du eraikitako azpiegitura erabat egokia dela telekomunikazio-sare publikoak ezarri eta ustiatzeko.

HIRUGARRENA.- TELEFÓNICA DE ESPAÑA SOZIETATEAREN ESKU-HARTZEAK

Azpiegituraren berrikuspena.

TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak aukera izango du egiaztatzeo eraikitako azpiegitura behar bezala gauzatu dela eta araudi aplikagarriaren araberkoa dela. Horretarako, aukera izango du, Udalarekin koordinazioan, hark baimentzen baititu, azpiegitura telekomunikazio-zerbitzuak emateko egokia ote den egiaztatzeo neurri eta lan guztiei ekiteko. Egiaztatzeo lan horiek egin eta, hala badagokio, ohartarazitako gabeziak Udalaren aldetik konpondu ostean, TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak beharrezkoa zaion eraikitako azpiegituraren harrera egiteari ekingo dio. Prozesu horretan Hitzarmen honetako bosgarren hizpaketan adierazitakoari jarraituko zaio. Harrera horrekin lotuta, instalazioek bi urteko berme-epea izango dute harrera egiten denetik zenbatzen hasita.

Instalazioak lurperatzea

TELEFÓNICA DE ESPAÑA arduratuko da egun dauden airezko edota fatxadako instalazioak desmuntatzeko lanak egiteaz eta, ondoren, horiek Udalak Hitzarmen honi jarraiki eraikitako azpiegitura kanalizatuan lurperatzeaz. Instalazioak aldatzeo lan horiei ekin aurretik, kanalizatutako azpiegitura onartua izan beharko da, hurrengo hizpaketetan xedatutako moduan.

Eraikitako azpiegituraren mantenua

Behin TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak azpiegitura hurrengo hizpaketan ezarritakoaren arabera jaso ostean, enpresa hori arduratuko da hura mantendu eta kontserbatzeaz (eraikuntzan izandako akatsen ondorioz sortutako kalteak salbu), eta hori horrela izango da hartako erabiltzaile bakar modura jarraitzen duen bitartean.

LAUGARRENA.- AZPIEGITUREN HARRERA

Udalak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateari lagatzen dio Hitzarmen honek jasotzen duen telekomunikazio-azpiegituraren erabilera, 1. eranskinean zehazten dena, eta TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak egokitzeo jotzen du azpiegitura bere zerbitzuak behar bezala ematea bermatzeko, Udalak, hala badagokio, ohartarazitako akatsak konpontzeo duen betebeharraren kalterik gabe.



Behin betiko harrera ematen den unetik aurrera, lagatako telekomunikazio-azpiegitura haren gaineko erabilera erabateko eta etengabeko eskubidearen baitan geratuko da TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietatearen mesedetan, hartarako sarbide librea izanik.

Hitzarmen honen sinatzaileek adierazten dute haren baitan eraikitako azpiegitura kanalizatuen erabilera Udalak TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateari lagatzen diola Hitzarmenaren lurralde-eremuan egun dauden airezko edota fatxadako instalazioak aldatzeko lanen kontraprestazio modura, aipatu Konpainiak lurperatu egingo dituenak lagatzeko azpiegituretan, Udalarentzat inolako kargurik sorrarazi gabe, eta hori elkarren arteko kontraprestazioak orekatuak direlako, horrenbestez, jabari publikoan kokatutako telefono-instalazioak aldatzeko indarreko arloko legerian xedatutako araubide juridikoa betez. TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak, egungo airezko instalazioak lurperatzeaz gain, lagatako azpiegiturak bere zerbitzuak emateko beharrezkoak zaizkion sare eta ekipamendu berriak instalatzeko erabili ahalko ditu.

BOSGARRENA.- OBRAK ONARTZEKO AKTAK

Honakoa da kanalizatutako azpiegituren harrera-prozesuan erabiltzeko dokumentazioa:

a) Azpiegitura onartzeko moduan badago, "Onarpen Akta" izeneko 2. eranskineko eredia bete eta sinatuko da.

b) Eraikuntzan akatsak egoteagatik azpiegitura onartzeko moduan ez badago, "Onarpen-prozesua eteteko Akta. Konpontzeko Akatsen Zerrenda" izeneko 3. eranskinaren eredia bete eta sinatuko da. Behin akats horiek konponduta, eta azpiegitura onartzeko moduan egonik, "Onarpen Akta" izeneko 2. eranskineko eredia bete eta sinatuko da.

c) "Onarpen-prozesua eteteko Akta. Konpontzeko Akatsen Zerrenda" izenekoan adierazitako egunetik hiru hilabetera hartan zerrendatutako akatsak konpondu ez badira, TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak eskubidea izango du Hitzarmen honetan sinatutako akordioa behin betikoz ezeztatzeko.

SEIGARRENA.- BARNEKO AZPIEGITURAK ERAIKINETAN

Kanpoaldeko azpiegitura kanalizatuei jarraipena emate aldera, eta egokien jotzen diren prozeduren bidez, egungo airezko hargune indibidualek eragindako higiezinetakako jabeek beharrezkoak diren egokitzapen-lanak egin beharko dituzte derrigorrez horien barnean aldatuz joango diren telefono-instalazioak sartzeko eta kokatzeko ahalbidetzeko xedez. Horretarako, eraikinen barneko telekomunikazioko baterako azpiegiturei dagokienez indarrean den araudia hartu beharko da kontuan, eta gainera dagozkion hirigintza-lizentziak eskuratu beharko dira. Era berean, eragindako erakinak barnetik egokitzeko lanak programatu egin beharko dira eta modu koordinatuan egin beharko dira eragindako airezko instalazioak aldatzeko eta lurpeko kanalizazioak eraikitzeko lanekin batera. Hori guztiori, emandako zerbitzuaren jarraikortasuna eta kalitatea behar bezala bermatzeko xedez. Edozein kasutan, TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateak barnealdea egokitzeko lan horiek behar bezala gauzatzen direla egiaztatuko du bere airezko instalazioak lurperatzeko lanei ekin aurretik.

Lurperatzeko lanak ez dira egingo zerbitzuaren jarraikortasuna eta kalitatea behar bezala ziurtatuta egon arte, eta eragindako higigarrien jabetunak horietan eraikita leudeken barneko azpiegiturek erabiltzeko TELEFÓNICA DE ESPAÑA sozietateari emandako baimenak eskuan izan beharko dira aldez aurretik.

ZAZPIGARRENA.- INDARRALDIA ETA ONDORIOAK

Hitzarmen honen indarraldia 18 hilabetekoa da sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, ondoriorik gabe geratzen delarik epe hori igarota azpiegitura eraikitzeko lanak hasi ez badira.

ZORTZIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUNA

Sinatzaileek Hitzarmen honen bidez eskuratzen duten informazioa sekretu eta konfidentzialtasun handienarekin tratatzeko konpromisoa hartzen dute.

Eta hala ager dadin, adostasunaren proba gisa, parte hartzen duten aldeek Hitzarmen hau sinatzen dute, bikoiztuta, 1. goiburuan adierazitako leku eta egunean.

UDALAK

Iñigo Gomez Unzueta sinadura

TELEFÓNICA DE ARAMAIO DE ESPAÑA S.A.U. SOZIETATEAK

Jose Enrique Villen Villenen sinadura